

## **BURDINBIDEAREN EUSKAL MUSEOAK ASTE SANTUAN ZEHAR 10 LURRUN TREN ZIRKULAZIOAN JARRIKO DITU**

Eusko Jaurlaritzaren Sozietate Publikoa den Euskotreneko Burdinbidearen Euskal Museoak, datorren Aste Santuan zehar, apirilaren 18tik aurrera (Ostegun Santua), 10 Lurrun Tren zirkulazioan jarriko ditu. Horrela, Burdinbidearen Euskal Museoko Tren Historikoen 2019ko Denboraldia hasiko du. Tren hauek Azpeitia eta Lasao arteko instalazioetatik zehar ibiliko dira.

2019ko Aste Santuan, Lurrun Trenak aldi horretako jaiegun guztietan zehar ibiliko dira, Ostegun Santutik Pazkoko Asteleheneraino (apirilak 22), biak barne, eta irteerak Museotik 12:00etan eta 17:00etan izango dira.

Aste Santua bukatu ondoren, Domu Santuetako (azaroak 3) zubiraino 2019ko Denboraldiak jarraituko du. Bertan, Lurrun Trenek astebururo eta jaiegunetan ibiliko dira Museotik irteerak honako ordutegia izanik: larunbatak, 12:30ean eta 18:00etan; eta igandeak eta jaiegunak (astelehenak izan ezik) 12:30ean.

Lurrun Trenek AURRERA bezalako lurrun lokomotora beteranoen atarian eramango dituzte. AURRERA lurrun lokomotora Elgoibartik Donostiara doan Trenbiderako 1898an Manchesterren eraiki zen, beranduago Bilbo Donostiarekin lotzen zuen Eusko Trenbideak Konpainian sartu zen. 62 urtetan zehar eskaini zuen zerbitzua eta 1960an erretiratu egin zen.

Horren ondoren, bidaiarien kotxe historikoak ibiliko dira, hala nola, C-2 eta C-4. 1925ean Beasainen CAFek eraikita Urolako Trenbiderako, edo T-52, 1944an Gipuzkoako enpresak ere eraikita Eusko Trenbideak konpainiarako.

Aste Santuan zehar, apirilaren 18tik 22ra, biak barne, Euskotreneko Burdinbidearen Euskal Museoako irekiera ordutegia honako hau izango da: 10:30etik 14:00etara; eta 16:00etatik 19:30era.

Museoak bere instalazioetan Europako trenbide bildumarik hoberenak erakusten ditu, mota guztietako ibilgailuekin: lurrun, diesel eta elektrikoak diren lokomotorak; automotoreak eta bagoi mota desberdinak.

Horrez gain, Euskadiko makina-erreminta multzo osoenetakoa eskaintzen du, Urolako Trenbidearen tailer mekanikoa izandakoaren bitartez, eta XIX. mendearen amaieratik trenetan erabilitako uniformeen erakusketa bikaina eta mundu osoko tren arloko erloju bilduma hoberenetakoa dauzka.

### **Jendearentzako informazioa**

- Burdinbidearen Euskal Museoaren helbidea: Julian Elorza kalea, 8 (20730 AZPEITIA-GIPUZKOA).
- Informazio telefonoa: 943 15 06 77
- Faxa: 943 15 07 46
- Helbide elektronikoa: **[museoa@euskotren.eus](mailto:museoa@euskotren.eus)**
- Webgunea: **[www.euskotren.eus](http://www.euskotren.eus)**